


An illustration of five diverse young girls jumping joyfully around a central white circle. The girls are of various ethnicities and are wearing colorful clothing. The background is a light teal color with green foliage and small yellow flowers on the right side. The text inside the circle is written in a cursive font.

*Ipuinetan  
dago  
Muina*



Ipuinetan  
dago  
Muina





Ipuingileak: Clara Sallán Artasona  
Tania de la Roza de Miguel  
Leire Alargunso Maiztegui

Ilustrazioa: Andrea Gonzalo Pascual  
Diseinua: NB Servicios Gráficos  
Inprimaketa: Gráficas Allo  
Argitaratzailea: Herrien Arteko Laguntzarako Nafar Erakundea. ONAY  
Nafarroa Behereko etorbidea, 64 – 1.  
31006 Iruña – Nafarroa  
948 176 048  
onay@onay.org  
www.onay.org  
Lege-gordailua: NA 718-2020

Zilegi da lan hau nahi bezala kopiatu, banatu eta jakinaraztea, betiere egilea nor den aitortzen bada eta merkataritza xedeetarako erabiltzen ez bada.


Liburu hau hiru ipuinaz osatua dago, eta hirurak ere "Tu Cuento Cuenta" lehiaketaren irabazleak dira. Lehiaketa ONAYk antolatzen du Tantakarekin elkarlanean, INNOVA SOCIAL programaren finantzazioari esker.

Argitalpenak desberdintasunei buruz sentsibilizatu nahi izateaz gain, Hezkuntza Eraldatzaileari lotutako tresna hezigarri berritzaileak eskaini nahi ditu. Hori dela eta, ipuin bakoitzean gida txiki bat dago ikasgelan lantzeko.

Metodologiak hiru lan molde proposatzen ditu: batetik, talde handian lan egitea, batzarreko eta gogoetarako jarduerak eginez; bestetik, talde txikietan banatuta, lanak era kooperatiboan egiteko, eta hirugarrenik, ikasle bakoitzak bere kasa lan egitea are gehiago sakontzeko.

Metodologiari dagokionez, proposatu dugun hezkuntza-jarduerak hiru zutabe ditu oinarri: proiektuen bidez lan egitea, irakurketa dialogikoak egitea, eta ikaskuntza kooperatiboan aritzea.

ONAYn poz-pozik ari gara laguntza ematen ikasmaterial hau zabaltzeko lanean; horregatik, orrialde honetan bertan gure kontaktua aurkituko duzu edozein argibide eskatzeko.





# Aurkibidea

Afrikako Argia .....	9
Gida didaktikoa .....	14
Jenni eskolara doa .....	16
Gida didaktikoa .....	22
Saiatu zuen ametsak betetzen! .....	24
Gida didaktikoa .....	30







# AFRIKAKO ARGIA

Aspaldi-aspaldian, batek batek Afrikako argia eraman zuen berarekin. Gauetik goizera, Afrika kaleko argirik gabe esnatu zen. Diotenez, bat-batean, jende arrotza iritsi zen eta bonbillak, farolak eta goi-tentsioko kableak eraman zituzten. Den-dena ilun utzi zuten: kaleak, herriak eta errepideak.

Emakumeak ilunpean utzi zituzten, hau da, buruan fruta-nahiz arropa-saski handiak eta bizkarrean seme-alabak zeramatzaten emakumeak; eta masaiak ere ilunpean, bai eta masaien ahuntz artaldeak eta haurrak ere, haur oin zuriak, bide hautseztatuetan behin eta berriz jostetan aritzearen ondorioz.

Zergatik eraman zuten Afrikako argia? Beharbada, arrotz haien kontinenteetan farolarik ez zegoelako.

Afrikarrek, ordea, beren errepideetan barrena segitu zuten  
gidatzen, dala-dala ibilgailuetako fokuekin bazterrak argitzen.  
Ilundutakoan, errepideak suge liluragarria ematen zuen.



Emakumeek beren mantetan eserita jarraitu zuten, ahuakateak eta bananak saltzen, eguzkitik eguzkira eta ilargiaren argipean. Masaiek koloretako lepokoak egiten segitu zuten, guztiak ere jauzika eta kantuan, buztinez egindako eta keaz beteriko etxeen ondoan.





Afrikarrek beren begiak iluntasunera egokitu zituzten, baina hori egiterik izan ez zuten lekuetan, argia sortu egin zuten. Izan ere, mila su piztu ziren Kenyatik Senegalera, Saharatik Esperantza Oneko lurmuturrera, eta Afrikak berriro dirdira egin zuen.

Poliki-poliki, urteak joan urteak etorri, Afrika atera egin zen arrotzek murgilarazitako putzu ilun hartatik eta bere argiarekin dir-dir egin zuen.

Afrikak dir-dir egiten du eta, laster, den-denok liluratuko gaitu.



# Gida didaktikoa

*Maiz, pentsatzen dugu Afrika herrialde bakarra dela, urrutikoa eta pobrea. Baina, pobreziak pobrezia, desberdintasunak desberdintasun eta indarkeriak indarkeria, Afrika oso ezberdina da alde batetik bestera eta sekulako aberastasunak ditu, eta den-denok ezagutu eta aintzat hartu beharko genituzke.*

## Helburuak:

- ✓ Kontinentea ezagutzea, Afrikan gehiago sakonduta: kokapena, luze-zabalera...
- ✓ Ikasleei Afrikako kulturako zenbait ezaugarri erakustea: ohiturak, usadioak, janari mota, jantziak, etab.
- ✓ Bakoitzak arazoak konpontzeko eta ahaleginerako berez duen gaitasuna ezagutzea.

## Edukiak:

- ✓ Kontinenteak.
- ✓ Mapa mundia/munduko bola.
- ✓ Afrikako kulturaren ezaugarriak: usadioak, jantziak, janaria.



## 1. Jarduera: Zer dakigu Afrikaz?

Ikasleekin ideia-zaparrada bat egingo dugu:

- Zer da Afrika? Non dago, zure ustez? Hurbil, urrun?
- Zer dago han? Zer gauza datoz Afrikatik? Baze-  
nekien jaten dugun gehiena Afrikatik heldu dela?  
Eta sakelako telefono guztiek Afrikako zertxobait  
daukatela barnean?
- Zer dira kontinenteak? Zenbat dira?
- Kontinenteak mapa mundi batean kokatuko ditugu.  
Ezberdintasunak ikusiko ditugu. Gu non gauden adie-  
raziko dugu, non jaio garen, gure senitartekoak non  
jaio diren...
- Geure mapa mundia egingo dugu, eta ikasleek Afrika  
eta Nafarroa margotuko dituzte.
- Marraztuko dugu zer garraibiderekin joan gai-  
tezkeen leku batetik bestera.
- Ikusiko dugu zer dagoen hurbilen, eta zer, urrutien.  
Mapa mundiko beste leku edo herrialde batzuekin  
alderatuko dugu.

## 2. Jarduera: Zer dago Afrikan?

- Afrikako kulturako hainbat alderdi ikusiko ditugu.
- Hainbat saiotan, Afrikan zer janari mota dagoen  
landuko dugu. Nafarroako janari tradizionalarekin  
alderatu dezakegu; edo saio bat antolatuko dugu,  
elikagai batzuk zentzumenen bidez ezagutzeko.
- Afrikako dendaren txokoa egin dezakegu.
- Afrikako hainbat dantza eta soinu-tresna ezagu-  
tuko ditugu, bai eta musika afrikarra ere, modernoa  
nahiz tradizionala. Instrumentuak egin eta dantza  
bat prestatuko dugu.
- Interneten, Afrikako gizon, emakume eta haurren  
argazkiak bilatuko ditugu. Nola daude jantzita?  
Berdin? Ezberdin? Jantzia abagunearen arabe-  
rakoa al da? Deigarrien zaigun arroparen mozo-  
rro-jantziak egingo ditugu.

## 3. Jarduera: Zergatik eraman zuten Afrikako argia?

- Ongi iruditzen zaizu baten batek Afrikako argia  
handik eraman izana?
- Zer egingo zenuke, argirik gabe geldituko bazina?  
Ikasgelan argirik gabe egotea zer den esperimen-  
tatuko dugu.
- Behar diren irtenbideak proposatuko ditugu ar-  
girik gabe gaudenean agertzen zaizkigun arazoak  
konpontzeko.







# JENNI ESKOLARA DOA

*Behin batean, bazen Jenni izeneko neskatu bat. Mendian bizi zen. Etxetxoa mendian baitzegoen, oso gora, belardi baten erdian.*

*Goizeko 5etan jaikitzen zen hurbileko herri batera eskolara joateko. Dena den, batzuetan ezin zen eskolara joan, etxekoei etxean lagundu behar izaten zuelako.*

*Arratsaldean, etxetik hurbileko beste belardi batera igotzen zen aitatzoren hiru behiak zaintzeko.*



Behiek esnea ematen zuten gosaltzeko, gazta egiteko, eta haragia ere, jateko. Etxe ondoko lurretan, gainera, baratze bat zeukaten, oso egokia barazkiak eta fruta eskuratu eta jateko.

Etxeko guztiak aritzen ziren baratzeko barazkiak biltzen. Jenni ere bai. Eta auzokideren batek bere baratze-lanetan laguntza behar izanez gero, beti zeuden laguntzeko prest.









Behin batean, ohartu ziren Jennik gehiago ikasten zuela eskolan baratzean baino, eskolan irakurtzen eta idazten ikasten zuelako. Eta gainera, zenbakiak ere bazekizkien, behiak eta biltzen zituzten barazkiak zenbatzeko.

Hori dela eta, aitatxok eta amatxok pentsatu zuten onena izango zela alabatxoa egunero eskolara joatea. Horrela, Jennik ikasi egingo zuen eta, gainera, handitzean, neskatoak nahi zuen hartan lan egiteko aukera izango zuen.

# Gida didaktikoa

*Munduko haur guztiek eskolara joateko eskubidea dute. Izan ere, hezkuntzak bizitza hobetzen laguntzen du, eta funtsezkoa da pobrezia amaitzeko.*

## Helburuak:

- ✓ Ikasleei GIHak edo Garapen Iraunkorrerako Helburuak zer diren azaltzea, eta arreta batez ere 4. GIHean jartzea.
- ✓ Hezkuntzak daukan garrantziaz sentsibilizatzea.

## Edukiak:

- ✓ Eskolak hainbat kulturatan.
- ✓ Hezkuntza.
- ✓ GIHak.



## 1. Jarduera: Ados Vs Desados

Ikasle guztiak zutik jarriko dira erdigunean, baina lehenago, ikasgela bitan banatuko dugu eta alde bakoitzean kartel bat jarriko dugu: "Ados" eta "Desados". Esaldi bat esatean, alde batean edo bestean jarri beharra dago, ikaslearen iritziaren arabera. Behin taldeak sortuta, beste taldea konbentzitzen saiatu beharra dago, ikaslearen bat alde batetik bestera aldatzea lortzeko.

### Esaldiak:

- ▶ Haur guztiak eskolara doaz.
- ▶ Nik aukeratu ahal izango banu, ez nintzateke eskolara etorriko.
- ▶ Munduko milioika haur behartuak daude lan egitera eta ezin dute eskolara joan.
- ▶ Munduko eskola guztietan gauza berbera ikasten da.
- ▶ Eskolak irakurtzen eta idazten ikasteko besterik ez du balio.
- ▶ Hezkuntza lagungarria da bizitza hobetzeko.
- ▶ ...

## 2. Jarduera: GIH. Zer da hori?

- GIHak zer diren ote dakiten galdetuko diegu ikasleei. Telebistan edo kartelen batean ikusi ote dituzten.
- GIHei buruzko bideoa ikusiko dugu: "Munduko leziorik handiena":

<https://youtu.be/IT9rJkK6WiU>

- \* Interneten informazio asko dago jarduera hau egiteko. ONAYrekin ere hitz egin dezakezu materiala eskuratzeko.

## 3. Jarduera:

### 4. GIHa ezagutuko dugu: "Kalitatezko hezkuntza"

4. GIHi buruzko kartel bat egingo dugu. Gai hauei buruzko informazioa bilatuko dugu:
- Hezkuntzari buruzko benetako datuak.
  - Hainbat herrialdetako eskolen argazkiak.
  - Hezkuntzaz mintzatzen diren pertsona ospetsuak.

Gure artean solasean:

- Nola irudikatzen duzu Jenni handitan? Egizu marrazki bat.
- Eta, Jennik eskolan jarraitu izan ez balu? Neskatoa handitan berdin biziko litzateke?

\*Web honetan, 4. GIHa lantzeko materialak daude.

[https://issuu.com/docentesparaeldesarrollo/docs/primaria\\_aecid](https://issuu.com/docentesparaeldesarrollo/docs/primaria_aecid)

# SAIATU ZUEN AMETSAK BETETZEN!

*Jambo watoto! Horrek... “kaixo haurrak!” esan nahi du. Zuen hizkuntza nahiko ongi hitz egiten badut ere, batzuetan swahilia ateratzen zait. Barkaidazue. Nor naizen esango dizuet: Happiness naiz, Tanzaniako neska gazte bat, eta oso istorio polita kontatu nahi dizuet, nik hainbeste gozatuko duzuelakoan!.*





Legangan jaio nintzen. Herritxo txiki bat da, Afrikako mendirik altuenaren oinetan kokatua. Mendi hori Kilimanjaro da. Txiki-txikitatik, umezurtz-etxe batean hazi nintzen, nire gurasoek ez baitzuten aukerarik izan ni ongi zaintzeko. Egia esateko, umezurtz-etxe hitz hori pixka bat itsusia iruditzen zait, han hazitako haurrok gurasoak genituelako. Beraz, hemendik aurrera, toki horren izena erabiliko dut: Safe África.



Haurrez inguratuta hazi nintzen eta oso zoriontsua izan nintzen. Egun bakoitza bizitzen genuen, biharamunari erreparatu gabe. Eskuen artean genuen apurra gozamen hutsa zen guretzat (apurra, edo beharbada, ugaria, nondik begiratzen zaion). Ederki pasatzen genuen kantuan, txaloka, zabuan, futbolean, txingoan, baina batez ere, eskolara joatea gustatzen zitzaigun. Geure arropa garbitu behar izaten genuenean ere, edota txikienentzako janaria prestatu behar zenean ere, primeran pasatzen genuen.



Baina, ni dantzan aritzea nuen gustukoen. Izan ere, dantza irakaslea Safe Áfricara etortzen zen bakoitzean, esaten nion handitan dantzaria izan nahi nuela: berak irri egiten zuen eta esaten zidan neskek beren seme-alabak zaindu behar dituztela, eta benetako lana egin.





*Dena dela, ez nuen etsi eta dantzari profesionala izatea lortu nuen.*

*Beraz, izan gogoan Happiness, eta saiatu beti zoriontsuak izaten!*



# Gida didaktikoa

*Haurren ametsak antzekoak dira mundu osoan. Ezerk ere ez lieke ametsa eragotzi behar, ezta haien gogoia edo nahia ere.*

## Helburuak:

- ✓ Afrikako kulturak ikasleei erakustea.
- ✓ Afrikako eta Europako kulturetako lanak/ zereginak aztertzea, hala helduenak nola txikienak.
- ✓ Ikasleek etorkizunerako dituzten ametsak/ espektatibak agerian uztea.

## Edukiak:

- ✓ Afrikako kulturak eta Europako kulturak.
- ✓ 5. GIHa
- ✓ Ametsak/espektatibak.



## 1. Jarduera: Ezberdinak al gara?

Ipuina aztertuko dugu:

- Zer egitea dute gustuko Safe African bizi diren haurrek? Eta zuk?
- Zer lan egiten dituzte? Eta zuk? Ziur badagoela orain egiten ez duzun lanen bat, baina zuk ere egin zenezake eta etxean lagundu.
- Zertan aritzen dira zuen gurasoak? Zuen ustez, Afrikako aitatxoek eta amatxoek ere lan berberak dituzte?

Grafiko bat egin daiteke datu guztiak biltzeko, eta horrela, era bisualagoan, informazioa errazago ulertzen da.

## 2. Jarduera: 5. GIHa. Genero berdintasuna

- 5. GIHa aukeratu dugu GIHen taulatik: margotu, haren izena idatzi, sinboloak aztertu eta denok ikusteko tokia batean jarriko dugu.

## 3. Jarduera: Zer izan nahi dugu?

Batzarrean, denon artean hitz eginen dugu:

- Zer izan nahi duzu handitan? Erraza izango da, zure ustez?
- Zure ustez, erraza izan al zen Hapinessentzat dantzari izatea?
- Eta zer izan nahi zuten zuen amatxoek eta aitatxoek? Lortu al dute?
- Inkesta bat egin dezakegu etxean egiteko.

## 4. Jarduera: Zer esaten digute?

Solasean arituko gara:

- Happinessi benetako lan bat bilatu behar zuela esaten zioten. Zer esan nahi du horrek?

Jolasean arituko gara:

- Papertxoetan hainbat lanbide marraztuko ditugu: dantzatzea, janaria prestatzea, youtube, medikuntza, iturgintza, etab. Papertxoak puxiketan sartu ondoren, ikasleek puxikak harrapatu, lehertu eta barruan dagoen lanbidea "benetakoa" den edo ez esan beharko dute.

Solasean arituko gara:

- Era berean, seme-alabak zaindu behar zituela esaten zioten. Zure ustez, amatxoek bakarrik zaindu behar al dituzte seme-alabak? Zergatik?

Jolasean arituko gara:

- Etxeko hainbat "umetxo"-panpina eramateko eskatuko diegu, ikasle bakoitzak familiarekin gehien egitea gustatzen zaiona denbora tartez batez antzeztu dezan.



# Egileak

## **Clara Sallán Artasona**

Afrikako argia

1. Saria

Historia eta Nazioarteko Harremanetako 2. maila

Tanzania, 2019ko ekaina

## **Leire Alargunsoro Maiztegui**

Jenni eskolara doa

2. Saria

Medikuntzako 5. maila

Peru, 2019ko abuztua

## **Tania de la Roza de Miguel**

Saiatu zuen ametsak betetzen!

3. saria

Haur Hezkuntza eta Pedagogiako 3. maila

Tanzania, 2019ko ekaina




ONAYk 25 urte baino gehiago daramatza hainbat herrialderekin elkarlanean, osasun eta hezkuntza arloan, Nafarroan gizarte solidarioagoa, kritikoagoa eta konprometituagoa eraikitzen laguntzeko.

Testuinguru horren barruan, nazioartean diharduen unibertsitateko boluntariotza-  
ren alde ari gara, eta Tantakarekin lankidetzan, boluntarioak prestatzen eta arlo  
hori kudeatzen.

2019an, INNOVA SOCIAL programaren finantzazioari esker, haurrendako ipuin le-  
hiaketa bat antolatu genuen, esperientzia horiek biltzeko eta, horrela, Hegoalde-  
ko herrialdeetan duten egoera gure komunitateko haurrei ezagutzera emateko,  
betiere herrialde haietan dituzten alde onak eta aberastasuna azpimarratuta.

Egileek, 2019ko udan, Afrikan eta Amerikan bizi izandako esperientziak dira  
ipuin inspirazio-iturria.









#### FINANTZIAZIOA:

Caja Navarra eta La Caixa banku fundazioek  
sustaturiko Innovasocial Programa.



#### LAGUNTZAILEA:



Universidad  
de Navarra

